

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Donostiak Cargo Biken egingo den 355 km-ko ibilbidearekin eman dio hasiera Mugikortasun Asteari

*CargoBizi Ibilbidearen helburua da bizikleta mota hori sustatzea, Mugikortasunaren Europako Astea (irailaren 16tik 22ra).*

Donostiako Udalak **CargoBizi Ibilbidearen** irteerarekin eman dio hasiera Mugikortasunaren Europako Asteari. “*Hiria aldatu cargo bikean*” lelopean, 355 km-ko ibilbidea egingo da zama-bizikletetan euskal geografian barna, bidegorri eta errepideetan, garraiobide hori sustatzeko.

Donostiako TXITA enpresako bi *cargo bike* Alderdi Ederretik abiatu dira gaur goizean, eta, datozen 9 egunetan, 355 km-ko ibilbide bat egingo dute. Gasteizen (larunbata, 18) eta Bilbon (astelehena, 20) geldialdiak egingo dituzte, eta ostiralean, hilak 24, Donostiara itzuliko dira. Beste udalerrri batzuetan ere egingo dira geldialdiak, hala nola, Hernanin, Tolosan, Beasainen, Bergaran, Arrasaten, Durangon, Eibarren, Elgoibarren, Deban, Zumaian eta Zarautzen. Haietan guztietan, bizikleta mota hori sustatzeko ekitaldi txiki bana egingo da. Irteeran tokiko enpresa batzuk eta partikular batzuk izan dira, egunero garraiobide hori erabiltzen dutenak.

Ibilbidearen helburua da mota horretako bizikleten erabilera sustatzea, *City Changer Cargo Bike (CCCB)* europar proiektuaren barruan. Programa horretan, 21 udalerrri parte hartzen dute, ibilgailu horien bidezko mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua partekatzen duten 21 udalerririk, hain zuzen, hainbat herrialdetakoak direnak.

Pilar Arana Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotziak adierazi duenez, Mugikortasunaren Aste honetan, Udalak ahalegina egin du garraiobide mota jakin bat bultzatzeko, gure hirian oso ezaguna ez dena baina familia eta enpresentzat, bai eta ingurumenerako ere, abantaila asko dituena.

Izan ere, hiri askok, kontinente osoan zehar, salgaiak, eta are hurrak ere, errazago garraiatzeko pentsatuta dauden zama-bizikleta horien aldeko apustua egin dute. Donostian 18 negoziok eta hainbat partikularrek erabiltzen dute garraiobide hori eguneroko kudeaketak egiteko, eta Udala lanean ari da familiek erabil dezaten sustatzeko, ikastetxeen bidez.

#### Mugikortasunaren Europako Astea

*CargoBizi Ibilbideaz* gain, beste hainbat jarduera programatu dira Mugikortasun Asterako. Urtero egiten da, irailaren 16tik 22ra. **“Mugitu jasangarri, mugitu osasuntsu”** lelopean, ingurumena errespetatzen duten garraiobideak sustatzeko eta haiei buruzko prestakuntza emateko 7 ekintza egingo dira.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Ostiralean, hilak 17, **online** mintegi bat egingo da, **Norbanako Mugikortasun Ibilgailuen gaineko Bide Segurtasunari buruzkoa**, 11:00etatik 11:30era, gaztelaniaz, eta 12:00etatik 12:30era, euskaraz. Mintegian patineteei buruzko parametro batzuk jorratuko dira, bide-segurtasunari dagokionez. Horretarako, Norbanako Mugikortasun Ibilgailuetan dauden tipologiaren errepasoak egingo da, bai eta hirian bizikidetzaren hobea lortzeko bete behar dituzten arauena ere. Mintegian parte hartzeko, [mugikortasuna@donostia.eus](mailto:mugikortasuna@donostia.eus)-en bidez eskatu beharko da sarbidea.

Egun horretan bertan, 14:00etan, **Bide Segurtasunari buruzko Prestakuntza-saio bat** egingo da, *Ceinpro* ikastetxean. Bertan, Prestakuntza Soziosanitarioko ikasleek gai hauen inguruko zalantzak argituko dituzte: hiriko irisgarritasuna eta mugikortasuna, oro har, motordun ibilgailuei eta motorrik gabekoei dagokienez, bizikidetzaren indartzea helburu, bereziki dibertsitate funtzionala duten kolektiboari eta adinekoei begira.

Larunbatean, hilak 18, 11:30ean, Rezola Matia egoitzak irteera bat egingo du **"Bizikletaz adinik ez"** ekimenarekiko lankidetzaren barruan, mugikortasun-arazoak dituzten adinekoren osasunari, sozializazioari eta ongizateari laguntzeko.

Familientzako prestakuntza astelehenean, hilak 20, izango da, **"Galdetu al diozu zure buruari nola eramango zenukeen zure haurra bizikletan? izeneko online mintegiarekin**. Mintegi hori Europako CCCB proiektuaren barruan dago. Ikastetxeetan bizikletak eta cargo bikeak erabiltzeko kanpaina bat da, informazio-lantegiak eta probak baliatzen dituena.

Horrela, haurrak bizikletaz eramateko diren elementu mota desberdinak (aulkitxoak, atoiak, zama-bizikletak...) sustatu eta horien berri emango da. Helburua da herritarrak bizikletaren erabileraz eta bizikletaren aukera eta aldaera guztiez kontzientziatzea, motordun ibilgailua gutxiago erabil dezaten. Horretaz gain, jakinaraziko zaie nola ondo erabili bizikleta eguneroko joan-etorrietan. Euskarazko saioa 17:00etan izango da eta gaztelaniazkoa, 18:00etan. ([mugikortasuna@donostia.eus](mailto:mugikortasuna@donostia.eus) webgunearen bidez eskatu sarbidea).

Asteartean, hilak 21, **Easo Politeknikoko** Natura Ingurune eta Aisialdi Gidari-lanak heziketa-zikloko ikasleek prestakuntza-saio bat jasoko dute Bide-segurtasuneko taldearen eskutik, eta bizikletaren erabileran duten trebetasuna neurtuko dute, hirian bizikletaz ibiltzea seguruago egiten duten jarraibideak jorratzeko, dela bidegorritik, dela galtzadatik, baina modu seguruan betiere.

Programazioa amaitzeko, asteazkenean, hilak 22, 17:30ean, **"Bizikletaz adinik ez"** izeneko prestakuntza-ikastaro bat egingo da. Arduradunek herritar guztiei irekitako saio bat eskainiko dute. Saio horretan, parte-hartzaileak elkarrekin erabiltzen dituen trizikloak erabiltzen trebatuko dira, elkarrekin boluntario izatera animatuko zaizkie eta irteerak egin ahal izango dituzte, adinekoei edo dibertsitate funtzionala dutenei lagunduz eta paseatuz.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Kontzientziazio-kanpainak

Datozen egunotan, bi komunikazio-kanpaina egingo dira Mugikortasun Sailaren eta Dbus konpainiaren eskutik.

"*Bizikidetza da sari nagusia*" kanpainaren helburua da bizikleta garraiobide gisa erabiltzen duten herritarrengana iristea, hirian bete behar diren erabilera-arau egokiak azpimarratuz, ibilgailuekin eta oinezkoekin bizikidetza hobea izan dezaten, eta bizikleta behar bezala erabiltzen duten pertsonak sarituz. Mezu hori osatzen duten bideoak eta kartelak sare sozialetan ikusgai egongo dira.

Bestalde, Dbusek "*Mugitu jasangarri, mugitu osasuntsu*" kanpaina jarriko du abian. Garraio publiko eta jasangarria erabiltzeak ingurumenari eta osasunari dakartzkien onurei lotutako ideiak transmititzea du helburu. Aurtengo kanpaina osasun fisiko eta mentalaren ingurukoa da, gure udalerrietan modu jasangarrian mugitzeko moduei lotua, dela autobusez, dela bizikletaz, dela oinez.

Donostia, 2016ko irailaren 16a